Mari

Euskal mitologiako jainkosa nagusia da Mari. Agertu ohi den lekuen araberako izenak hartzen ditu: Txindokiko Mari, Mari Munduko, Mari Muruko, Marimur, Mariarrika, Andre Mari Munoko, Putxerriko Dama, Anbotoko Dama, Bideko Emaztexuria, Damatxo, Gonagorri...; Mari Anboton dagoenean, euri handiak izaten dira, eta Aloñan dagoenean, aldiz, lehorte luzea.
Bidaiatzeko, lau zaldiz tiraturiko gurdi batean eserita igarotzen da airean, sua dariola, txinpartak ateraz eta ke-arrastoa utziz. Beste batzuetan, sutan bildurik eta airean etzanik ere zeharkatzen du zerua. Ahari baten gainean ere ikusi izan dute. Erratz bat eraman dezake atzean, edo kateak; ateratzen duen hotsagatik antzematen zaio.
Dotore jantzirik agertzen da, batzuetan soineko gorriarekin; noiz edo noiz, emakume erraldoi baten itxuran, buru inguruan ilargi betea duela. Batzuetan, hegazti-hankak ditu; beste batzuetan, ahuntzarenak. Akerraren, zaldiaren edo bigantxaren itxuran ere ikusia dute; eta, leize-zuloren batean, bele-itxuran nahiz sai-itxuran. Sua darion zuhaitz baten forma ere hartu izan du, edo hodei zuriarena, edo suzko bola batena, edo suzko igitaiarena, edo ostadarrarena. Lurpeko bizilekuetan hartzen ditu animalia-itxurak; gainerakoak, berriz, Lurraren azalean edo airean dabilenean.
Garai batean, Mari gizakiekin nahasi zen, besteak beste Don Diego Lope de Haro ehiztariarekin, Bizkaiko Jaunarekin alegia. Mari, alde guztietan eta itxura askotan agertzen den jainkosa. Euskal mitologiako erregina. Aurrenekoa.

Mari es la diosa principal de la mitología vasca. Habita en diversos lugares, y en cada uno de ellos adopta un nombre más o menos distinto: Mari de Txindoki, Mari de Mundo, Mari de Muru, Marimur, Mariarrika, Andre Mari de Muno, Dama de Putxerri, Mujer Blanca del Camino, Damatxo, Gonagorri (Faldarroja), Dama de Amboto...
La diosa viaja a través del aire sentada en un carro tirado por cuatro caballos, con una cola de fuego, echando chispas y dejando una estela de humo. Otras veces cruza el cielo tumbada y envuelta en fuego. Pero también ha sido vista montada sobre un carnero, en una escoba, o arrastrando cadenas y emitiendo un ruido delator. Se sabe que cuando Mari se detiene en el monte Amboto, provoca copiosas lluvias. Cuando está en el Aloña, en cambio, origina prolongadas sequías.
Elegante, se la conoce sobre todo vestida de rojo, aunque de cuando en cuando toma la forma de una mujer gigantesca con una luna llena sobre la cabeza. A veces tiene patas de ave; otras, de cabra. En otras ocasiones se ha convertido en un árbol ardiendo, en una nube blanca, en una bola de fuego, en una hoz de fuego e incluso en arcoíris. Solo si aparece bajo tierra, en las cuevas, puede adoptar también formas animales: macho cabrío, caballo, ternera, cuervo o buitre. En un tiempo remoto Mari congenió con los humanos e incluso tuvo relaciones con ellos, por ejemplo con el cazador don Diego Lope de Haro, Señor de Vizcaya.
Mari es la diosa que está en todas partes y que puede adoptar formas diversas. Es la reina de la mitología vasca. La primera.